

Arantzazu

Bitoriano Gandiagaren Begitan



Hiru Dorreak

HIRU DORREAK, LUZE TA GARBI,
harkaitzeen urdin gainean
zuri ta zinbel ta izarrei buruz,
ilargitako airean.

T'ez dakit zertaz mintzatuz
t'ez dakit zer gogoratzuz,
luze ta garbi, ari diran hain
oparo gaua zoratuz.

Ta harkaitz urdinen gainean,
hiru dorreak, zuri ta zinbel,
ilargitako airean.

Ta ilargitako airean,
gauari jaulkiz ederra,
pianu baten lore aratzak
ta uraren hotsa eta, noizik behin,
txitxarren kantu leberra.

T'ez dakit zertaz mintzatuz
t'ez dakit zer gogoratzuz,
leber eta aratz, ari diran hain
oparo gaua zoratuz.

Ta harkaitzen urdin gainean,
argi ta eder, pianu baten
ore aratzak airean.

Bitoriano Gandiaga

Hiru dorreak dira Arantzazuko basilika berriaren irudi nagusia, ikono eta sinbolo: postaletan bai, baina batez ere bertara igotzen den edozein bisitariren begietan, urrunetik hasi eta bertaratu arte; bi dorre apalak elizari atxikiak, elizari eusten; dorre luzea, bakan eta lerden, elizako hormetatik zerbait aldentua, eliza zaintzen. Arantzazuko elizaren lehen proiektuan ia beren horretan ageri dira hiru dorreak, eliz arkitektura modernoaren aire berriak iragarritz. Arantzazuko sinbolo nagusietako bat —elorrri-arantzarena— harritan espresatua ageritzen dorretako harri-punta zorrotzean.

Oso deigarri eta kantagarri gertatu zitzaion Gandiaga poetari hiru dorreena; olerki bat baino gehiago die eskainia. Errealismo sendoaren adierazgarri egunargiz, gaueko ilargiaren ilun-argitan berebiziko misterioaren testigu bihurtzen dira hiru dorreak. Belarriak erne jarrita, gau ixileko hotsak entzuten ditu poetak: urarena, txitxarrena, eta komentutik edo ikastetxetik datozen pianoaren doinuak.

Honako iruzkin hau egin zuen Gandiagak olerki honi buruz: "Hiru dorreak, luze ta garbi. Gorago ere hitz egin dut ilargi beteak Arantzazun sortzen duen fantasiako giroaz. Zer ikuskizuna! Garesti, ordaindu beharrekoa balitz!".